



# Estella-Lizarra

## Kontuen kudeaketa eta Industria eta Formakuntzan hazkundea

**G**eroa Baik Lizarrako Udaletxean egindako ekarpena hiriaren garapenerako ardurua eta garrantzia handikoak diren alorrei loturik egon da.

Ogasun alorretik erronka handiei egin zaie aurre, hala nola lau aurrekontuen onarpena eta Oncineda kasuko kostuak arintzeko neurrien hartzea.

Koalizioak garapen ekonomikoa eta industrialak aktibatu ditu ere Zentro Teknologikoan eta Industrialdean

enpresen ezarpenarekin, bai eta Eskola Tailerrean formakuntza eskaintzaren zabaltzearekin.

Nabarmentzekoa izan da ere egungo Nafarroako Gobernuaren aldetik gure hirian egindako gastuaren gorakada, adibide ugari ditugularik, hala nola Udaletxe zaharraren zaharberritzea, Hizkuntza Eskola Ofiziala, Gustavo de Maeztu museoaren irisgarritasuna, Zumake bidearen sorrera edota Remontival ikastetxearen estaldura.



## Uxue Barkosen Gobernuaren inbertsioek gora egin dute

**U**xue Barkosen Gobernuaren inbertsioak gora egin dute Lizarran. Uxue Barkos Lehendakariaren Nafarroako Gobernuak Gobernuak inbertsio garrantzitsuak egin ditu Lizarran 2015-2019 legegintzaldian zehar. Na-

barmentzekoak dira Tokiko Inbertsio Planak jasotzen dituen guztiak, kale ezberdinetan zolaketa lanekin eta sareen hobekuntzarekin, besteak beste La Rúa kalean, edota Nafarroako Aurrekontu Orokorretan aurkitzen diren partida ezberdinak:

Udaletxe zaharraren zaharberritzea, Hizkuntza Eskola Ofiziala, Gustavo de Maeztu museoaren irisgarritasuna, Zumake ibilbidearen sorrera edo, azken kontu nagusi hauek, Remontival ikastetxeko estalduraren konponketaren zati bat.



Manu Ayerdi kontseilaria zinegotziekin Udaletxe zaharraren zaharberritzearen ondoren.

## Ondoz ondoko lau aurrekontu garaiz eta egoki onartu dira legegintzaldiari amaiera bikaina emanez



**2**019ko kontuak osotara 13.197.830 euroekin onartu dira berriki. Kopuru horri Julián Romano Musika Eskolaren Patronatuko 402.490 euro gaineratzen zaizkio.

Elkar ulertzeko eta akordioak lortzeko helburuarekin, legegintzaldi honetan onartu diren aurrekontu ezberdinek hiriari egonkortasuna ematea erraztu dute, aldi berean udalaren gaitasun finantzarioaren errendimendua optimizatuz. Garaiz eta egoki aurrera atera diren kontu berriak, Pablo Ezkurra Ogasun zinegotziaren alorraren eskutik, eta adostasun zabala lortu dituenak gainera, hirukoaren eta atxikitu gabeko zinegotziaren babesarekin.

Laugarren kontu hauek, aurrekoak izan diren bezalaxe, aurrekontu-zuhurtziaz landutako kontuak dira, baina hala ere, orain lau urte go-

**“Hiriari egonkortasuna eman zaio eta bere gaitasun finantzarioaren errendimendua optimizatu da”.**

bernu akordioan jarri genituen helburuak pixkanaka eta etengabe lortzea ahalbidetu dute. Modu honetan ziurtatu dezakegu, diru-sarrerek gora egin ez duten markoaren baitan, UPNk aurreko legegintzaldietan egindako murrizketak leheneratzea lortu dugula.

Aurreko urteetan bezalaxe, aurten superabitarekin itxi dugu 2018ko aurrekontu-jardunaldia, eta diru-kutxa soberakina 6 milioi euro baino gehiagokoa da, honek kontuak lantzeko modu hau berretsiz.

Aurrekontuak lantzeko eta horiek kudeatzeko modu honekin erreserbak eta prebisioak egitea lortu dugu, udal finantzak modu larrian zauritu

zitzaketen mehatxu garrantzitsuei aurre egitea ahalbidetuz. Horrela gainbalioen kobratze eta itzultzearekin sortutako arazoa konpondu dugu, lurrazpiko aparkalekua eraikitzeko udalari eman zitzaion kreditu linearen bi urte kritiko amortizatzeke gaitzen gara, eta hain garrantzitsua dena ere, Oncineta kasuaren lehen (eta espero dezagun azken) ordainketa faseei aurre egiteko erreserba nahikoak egin ditugu.

Azkenik, pozgarria da gure hiriak zorrak kentzeko garai berri bat hasi izana, aipatutako aurrekariak edukita batere erraza ez zen kontua. Legegintzaldi hau amaitzean udal zorra lehen aipatutako kreditu lineara mugatuko da bakarrik, oso interes tipo baxua duena gainera, honekin aurrekontu egonkortasunaren legeak ezartzen duen mugaren oso azpitik kokatzen garelarik.



## Hamarkadetan lehen enpresa industrialia

**H**ypred, jatorria Frantzia duen enpresa multinazionala izan da Lizarrako industrialdean ezarri den lehenena. Nabearen eraikuntza fasea behin amaituta, berriki hasi da funtzionatzen eta hainbat lanpostu zuzen eta zeharkakoren sorrera ekarri du.

Abeltzantarako eta elikadura industriarako garbigarri eta desinfektatzaileen fabrikazioa jardueratzen duen enpresa honek hogeita hamar planta ditu mundu osoan.

Zalantzarik gabe inflexio puntu bat da hiriarentzako zoru industrialia lortzeko egin den eginahal handiaren ondoren, eta enpresa berrieekin sinergiak ezartzea ahalbidetuko du.



## Industrialdearen handitzea eta Zentro Teknologikoan eta enpresa mintegian enpresen gorakada

**N**asuvinsa enpresa publikoarekin lankidetzan, Udalak hilabete ugari daramatza industrialdearen handitzeko lanean.

Lursailak urbanizatu eta udal-kotatu dira, bai eta bertan enpresak instalatzeko lagundu ere. Industrialdea faseka handituko da Nasuvinsarekin egindako hitzarmenaren

bitartez. Gainera, hiru lursail gurutzatu eta erabiltezin egiten zituen argindar trazaketa zegoen arazo desblokeaturik geratu da, lursail horietako batean enpresa mintegiaren handitzea proiektatuz.

Argindar konpainiarekin akordio bat erdietsi ondoren, trazadura berbidetatuko da, lursail horiek etorkizunean aprobetxatu ahal izateko garbi

utziz.

Azkenik, legegintzaldi honetan zehar, zentro teknologikoak eta enpresa mintegiak pairatzen zuten ahazte sakonetik erreskatatu dira. Zentroa eta mintegia gainera, enpresa gehiagoren etorrerarekin handitzen ari dira eta, dinamika honetan jarraitzen badute, handitzen jarraituko dute.

### GUZTION NAFARROA - LA NAVARRA DE TODOS/AS

Honegatik guztiagatik, nahi duen edonor gonbidatzen dugu gure Tokiko Taldea/Herrigunea ezagutu dezan, gure aldizkako bileretara etor dadin, eta bere kezka eta proposamenak helaraz ditzan, gure komunikabideen bitartez.

Invitamos a todo aquel que lo desee a que conozca nuestro Grupo Local/Herrigune, a que acuda a nuestras reuniones periódicas y a que nos exponga sus preocupaciones y sugerencias, a través de nuestros canales de comunicación:

